



Berritzegune
Nagusia

*HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO
GAITASUNA.
HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK*



*IRAKURTZEKO
GAITASUNA*

Irakurriaren ulermena
ebaluatzekeo jarduerak



- | | |
|---|---------------|
| 1. Sarrera | 3. or. |
| 2. Zer da irakurtzea? | 4. or. |
| 3. Ikasteko irakurri | 5. or. |
| 4. Irakurriaren ulermena ebaluatzeko jarduerak | |

Lehen Hezkuntza	9. or.
------------------------	---------------

Bigarren Hezkuntza	24. or.
---------------------------	----------------

1. Sarrera

Dokumentu honek Irakurtzeko Gaitasunaren Hobekuntza Plana egiten ari diren ikastetxeei lagundu nahi die. Ez du kompetentzia horrek biltzen dituen alderdi guztiei erantzuna eman nahi, *eskola esparruari* eta, batez ere, *ikasteko egiten den irakurketari* erreparatzen dio.

Irakurketaren inguruan egin daitezken askotariko ekimenen artean, honako honek *irakurtzeko gaitasuna ebaluatzeko* proposamenak biltzen ditu.

Proposamen horiek diseinatzeko, kontuan hartu dira “Pisa 2009. Irakurmena. Markoa eta ebaluazio probak”¹ eta gure erkidegoko “Irakurketa lantzeko orientabideak”² dokumentuak.

¹ <http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2009/PISA2009-EUSKADI-1TXOSTENA.pdf>

² <http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/planesmejora/irakurketalehenhezkuntza.pdf>
<http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/planesmejora/irakurketadbh.pdf>

2. Zer da irakurtzea?

PISA 2009 Irakurketa Markoak honela definitzen du irakurtzeko gaitasuna³: “(...) *helburu pertsonalak erdiesteko, norberaren aukerak eta ezagutzak garatzeko, eta gizartean parte hartzeko xedeekin, irakurleak testu idatziak ulertzeko, erabiltzeko, haietaz gogoeta egiteko eta haiekin konprometitzeko duen gaitasuna da.*”

Definizio horretan, ‘irakurketa’ hitz soilaren ordeaz, **irakurtzeko gaitasuna** kontzeptua aipatzen da. Kontzeptu horren baitan, era askotako ezagutzak, jarrerak eta estrategiak (kognitiboak, linguistikoak, pragmatikoak...) biltzen dira; eta horiek guztiek erabileraren bidez hartzen dute zentzua, askotariko egoeretan aplikatuz eta askotariko helburuei erantzunez.

Bestalde, “(...) **helburu pertsonalak erdiesteko, norberaren aukerak eta ezagutzak garatzeko, eta gizartean parte hartzeko**” perpausek honako hau azpimarratzen dute: irakurketa balioko tresna dela eskolan arrakasta izateko, norbera maila pertsonalean eta profesionalean garatzeko eta gizarte-bizitzan esku hartzeko.

Ulertzea, erabiltzea eta gogoeta egitea hitzek irakurritakoa zerbaitetarako erabiltzen dela azpimarratzen dute, harekin “zerbait egiten” dela, alegia, eta, irakurri ahala, irakurritakoaren zentzua etengabe berrikusi eta balioesten dela, hau da, xede jakin batekin irakurtzen dela.

Konprometitze hitzak irakurleak irakurketarekiko duen jarrera adierazi nahi du; izan ere, jarrerak zeharo baldintzatzen dute testuarekiko interakzioa, eta funtsezkoak dira irakurzaletasuna garatzeko prozesuan.

Testu idatziak, egun, era askotakoak dira: paperekoak eta digitalak, jarraituak (informazioa esaldi eta paragrafo jarraituetan antolatuak) eta ez-jarraituak (zerrendak, formularioak, grafikoak, diagramak...), multimodalak (hitzak eta irudiak konbinatuz...)... Halaber, ikasleak bizi diren XXI. mendeko gizarte

³ Pisa 2009. Irakurmena. Markoa eta ebaluazio probak.
http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/itemliberatuak/irakurmena2011/irakurmena_PISA2009osorik.pdf

eleanitz eta kulturantz honetan, ohikoa da beste hizkuntza batzuetan idatzitako testuak irakurtzea, eta faktore horrek areagotu egiten du testuen aniztasuna.

Irakurtzeko gaitasunaren deskripzio horren arabera, beraz, ikasleek, irakurle kompetenteak izateko, prozesu hauek egiteko gauza izan behar dute:

- informazioa eskuratu
- testua bere osotasunean ulertu
- testua interpretatu
- testuaren formari buruzko gogoeta egin eta forma balioetsi
- testuaren edukiari buruzko gogoeta egin eta edukia balioetsi

Informazioa eskuratzea da testuan esplizituki dauden datuak bilatu, aurkitu eta hautatzea irakurketa-xedeari erantzuteko. Ohiko jarduerak dira horiek eskolan nahiz eskolatik kanpo.

Testua bere osotasunean ulertzea da irakurritakoa prozesatzea testuari zentzu betea emanaz. Testuaren barne-koherentzia antzeman behar da, esanahi partzialak (esaldiena, paragrafoena...) elkarri lotuz harik eta zentzu orokorra berreraiki arte.

Testua interpretatzea da testuan, edo haren atal batean, esplizituki barik, ezkutaturik dauden ideiak eta informazioak identifikatzea. Prozesu horretan, jarduera kognitibo asko baliatzen dira; lehen mailako eta bigarren mailako ideiak bereizten laguntzen dutenak, kasu.

Testuaren formari zein edukiari buruzko gogoeta egiteko eta haiek balioesteko, irakurlearen ezagutzak eta esperientziak aktibatu, eta testuarekin lotu behar dira. **Edukiari** dagokionez, gogoeta medio, testuak ematen duen informazioa alderatu egin behar da beste iturri batzuetan eskuratutakoarekin.

Forma balioesteko, berriz, irakurleak testutik urrundu egin behar du, eta testua modu objektiboan aztertu eta hizkuntza kalitatea balioetsi.

3. Ikasteko irakurri

Ikasle guztiak irakurle gaituak izan daitezen, ikastetxeetan modu sistematikoan landu behar da irakurriaren ulermena, ikasgai eta arlo guztietan, eta aurrez antolatutako eta planifikatutako jardueren bidez.

Irakurketaren xedearen arabera, modu askotan irakurtzen da: irakur daiteke testuak dioena berriro esateko, hau da, esanahia erreproduzitzeko; halaber, testua ulertzeko irakur daiteke, eta irakurtzeko modu horrek testua azaltzeko aukera ematen du, informazioa gehitzeko, alegia. Baina irakurtzeko bi modu horiek baino askoz sakonagoa da ezagutza eraitzeko eta sortzeko egin behar den irakurketa.

Prozesu hori garatzeko, irakurketa kritikoa, gogoetatsua, egin behar da: irakulearen ezagutzak eta testuak dioena erlazionatzen dituen irakurketa, alegia. Irakurtzeko modu horrek testua ebaluatu egiten du, aztertu eta balioetsi. Hala, aukera ematen du eduki berari buruzko bertsio desberdinak erkatzeko, norberaren ezagutzarekin konparatzeko eta hori aldatzeko.

Halako irakurketa sakona garatu ahal izateko baina, informazio eskuratzeko soilera mugatu beharrean, irakurketa-prozesu guztiak lantzeko aukera ematen duten jarduerak planifikatu behar dira:

- informazioa eskuratu
- testua bere osotasunean ulertu
- testua interpretatu
- testuaren formari buruzko gogoeta egin eta forma balioetsi
- testuaren edukiari buruzko gogoeta egin eta edukia balioetsi

Horregatik, ikasteko irakurketa hobetzeko, ikastetxearen Hobekuntza Planak honako ekimen eta jarduera hauek bultzatu beharko lituzke:

1. Aztertu arlo eta ikasgai guztietan proposatzen diren irakurketa jarduerak. Irakurketa jardueren inguruko erabakiak hartzeko, ikastetxean proposatzen diren jardueren laginak aztertzea komeni da.
2. Diseinatu eta planifikatu irakurketa jarduerak, hala beharko balitz, arlo eta ikasgaietako material *didaktikoak* osatzeko. Halaber, komeni da ikasgaiari eta arloari dagozkion testuak eta dibulgaziokoak irakurtzeko denbora tartea zehaztea programazioetan. Jarduera horiek honako ezaugarri hauek eduki litzakete:
 - Askotariko informazio iturriak erabili: hedabideak, orri digitalak, webguneak, entziklopediak...
 - Irakurketa eta idazketa bateratu.
 - Irakurketa-jarduerak testuinguru batean txertatu, testuinguru horri esker jarduerekk zentzua eta helburu argia izan dezaten.
 - Ikasteko irakurketaren xede askotarikoak bultzatu: datu zehatzen bat bilatu, prozesu baten berri jakin...
 - Ikasteko oztopoak dituzten ikasleen beharrezanean erantzuna eman.
 - Informazio osagarria ematen duten bi testuen sintesia egin.
 - Eskolako lanetan hainbat informazio iturri baliatu; informazioa berregokitu, birmoldatu eta jatorria behar bezala aipatu.
 - Testu iruzkinak egin, beti ere argudioak eman.
 - Egintza bati buruzko bi ikuspegi desberdin edo gehiago irakurri, tesia antzeman eta argudioak eta norberaren iritzia eman eta justifikatu.
 - ...
3. Adostu diseinatutako jarduera horiek ebaluatzeko irizpideak eta ebaluazio-praktikak. Dokumentu honek, curriculumeko hainbat arlo eta ikasgaitan, ebaluazio jarduerak garatzeko iradokizunak eta adibideak aurkeztu nahi ditu.



**IRAKURTZEKO
GAITASUNA**

Irakurriaren ulermena
ebaluatzeko jarduerak

LEHEN HEZKUNTZA

Arloa: Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezaguera

Jardueraren testuingurua

Lehen Hezkuntzako ikasleentzat prestatutako *Landare loreduen bizitza ezkutua* sekuentzia didaktikoaren azken ataza moduan proposatzen da honako irakurgai hau.

<https://sites.google.com/site/zientziahezkuntzaekimena/landare-loredunak>

Testua lantzeko, irakurketaren hiru prozedura landuko dira: informazioaren bilaketa, interpretazio baten elaborazioa eta testuaren edukiaren balorazioa. Ikasleek testua irakurtzeaz gain, informazio osagarria bilatu beharko dute.

Bukaerako ataza moduan, Munduko Hazi Kriptaren arduradunei eskutitz bat idaztea eskatuko zaie Euskal Herriko landare autoktonoen haziak gordetzea proposatzeko.

Testua

Haziak, hondamendietatik gordeta

Ohiane Iraizoz

2008/04/01 | Elhuyar | zientzia.net

Zirkulu Artikoko Svalbard uhartean Munduko Hazien Kripta (Global Seed Vault) inauguratu zuten otsailaren 26an. Mendi baten barruan sartzen den 125 metroko tunel baten bukaeran dauden hiru gelak eratzen dute kripta.



Barruan, mundu osoko nekazariak hazten dituzten espezie guztien, edo askoren, laginak gordeko ditu (arroz, garia, artoa...). Hain zuzen, 4,5 milioi hazi-lagin gordetzeko lekua dauka, eta lagin bakoitzak ehunka hazi izan ditzake.

Helburua da nekazaritzan erabiltzen diren hazien dibertsitateari eustea, gaur egungo elikagai-produkzioari eutsi ahal izateko. Gainera, leku jakin batean, edo mundu osoan, hondamendiren bat gertatuko balitz, orain arteko nekazaritzarekin berriz hasteko aukera izango lukete.

Zirkulu Artikoko mendi baten barruan dagoenez, hango lurzoru izoztuak ziurtatuko ditu haziak behar dituzten tenperatura- eta hezetan-kondizioak. Zero azpitik 18-20 gradutan gordeko dituzte, eta hezetan-maila ere oso txikia izango da, hazien metabolismo-jarduera txikia dela ziurtatzeko.

Argazkia: Global Crop Diversity Trust

Itxuraz alde ilunik ez duen ekintza horrek, dena den, traba batzuk baditu. Batetik, ziurtzat jo dute haziak kondizio onetan gordeko dituztela eta, behar izatekotan, baliagarriak izango direla handik ateratakoan. Baina ez dute inola ere frogatu horrelakorik.

Bestetik, edozeinek ezingo ditu eskuratu edo erabili gordetako hazi horiek. Erakunde jakin batzuetako kideek bakarrik izango dute horretarako aukera, eta ez une jakin batean haziak beharko dituen edonork.

Gainera, biltegiaren azkeneko arduraduna Norvegiako gobernua da. Gaur egun, zuzen eta fidagarritzat jotzen da gobernu hori, baina ez dago esaterik aldatuko ote den.

Galderak

Informazioa eskuratzea

1. Non dago Svalbard? Bilatu non dagoen eta kokatu mapa batean.
2. Zein da eraikuntza hori egiteko helburua?
3. Zeintzuk dira aipatzen diren hiru alde txarrak?

Testua interpretatzea

4. Zergatik egin dute eraikuntza hori Artikoko toki horretan?
5. Kriptaren barneko baldintzak kontuan izanda, zer ziurtatu nahi da?

Testuaren edukiari buruzko gogoeta egitea eta edukia balioestea

6. Brasilen antzeko bat egin al liteke? Zergatik?
7. Hondamendiak aipatzen dira. Zein hondamendi izan daitezke?
8. Zure ustez, zein izan behako litzateke kripta horren arduraduna?

Arloa: Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera

Jardueraren testuingurua

Jarduera honen helburua Euskal Herriko historian zehar oso garrantzitsuak izan diren gertaerak ezagutzea da. Kasu honetan, ikasleak murgiltzen dira Historiaurrean, Euskadin lehendabiziko gizakien eboluzio eta ezaugarriak jakiteko. Eta bestaldetik, orokorrean, nondik gatoz galderari erantzunen bat aurkitzeko aukera ematea ere bai.

Testua

GIZAKION ARBASO ZAHARRAK

Munduko gizaki guztiok arbaso bera dugu, eta gizaki haren jatorria Afrika izan zen. Ikerketa zientifikoaren arabera, orain dela 200.000 urte inguru sortu zen egungo gizakia, Afrikako ekialdean. *Sapiens* gizakia zen eta itxura fisikoa zein adimen-gaitasuna gureen oso antzekoak zituen. Afrika osoa kolonizatu ostean, Ekialde Hurbilera, Indiara, Japoniara eta baita Australiara ere zabaldu zen. Europara duela 40.000 urte heldu zen, eta bertan, jatorrizko *Sapiens* afrikar hartatik beste gizaki bat sortu zen: Cro-Magnongo kultura sortu zen lehen gizakia.

Pirinioen inguruan kokaleku ezin hobea aurkitu zuten etorri berriek. Andoni Lizarralde etnologia-iralaslearen hitzetan, "Afrikatik etorritako gizaki haiek pintura, eskultura, magia eta bizitzarako teknologiak sortu zituzten. Hori guztia aztarnak aurkitu ditugulako dakigu, eta dirudienez, hemen etengabe iraun du etnia horrek, eta esan genezake euskaldunok Cro-Magnongo gizaki horien ondorengoak garela, hein handi batean".

Hizkuntza Adi-Adi.

LHko 6. kurtsoa

Zubia-Santillana, 2006

Galderak

Testua bere osotasunean ulertzea

1. Zure ustez, esaldi hauetatik zeinek biltzen du ondoen testuaren ideia nagusia?
 - a) Ikerketa zientifikoaren arabera, orain dela 200.000 urte inguru sortu zen egungo gizakia, Afrikako ekialdean.
 - b) Munduko gizaki guztiok arbaso bera dugu, eta gizaki haren jatorria Afrika izan zen.
2. Zure ustez, esaldi hauetatik, zeinek biltzen du hoberen testuaren egilearen asmoa?
 - a) Egileak pertsona guztiak jatorri komun afrikarra dugula erakutsi nahi du.
 - b) Egileak nabarmendu nahi du euskaldunok Cro-Magnongo gizakiarengandik gatozela.

- c) Egileak Afrikan sortu ziren lehendabiziko gizakiak ez zirela han geratu baizik eta beste kontinente batzuetara joan zirela azpimarratu nahi du.
3. Zure ustez, argitalpen hauetatik zeinetan koka daiteke irakurritako testua?
- a) Euskaldunen gaineko historia liburu batean.
 - b) Gai orokorren gaineko aldizkari batean, erreportaje batean.
 - c) Andoni Lizarralderen biografia batean.

Testua interpretatzea eta informazioa eskuratzea

Ondorioak eta inferentziak

4. Testua kontuan hartuta, ideia eta iritzi hauetatik zenekin zaude ados?
- a) Zer zaila den zientifikoki jakitea zein den Gizadiaren jatorria eta bilakaera.
 - b) Zer zaila den jakitea Cro-Magnonek kultura zeukaten ala ez.
 - c) Gizadiaren iragana ezagutzeko, bide bakar bat dago, hots, gizakiaren aztarnak zientifikoki aztertzea.

Identifikazioa eta laguntza-probak

5. Testua kontuan hartuta, zure ustez, zergatik esan dezakegu euskaldunok Cro-Magnonengandik gatozela? Aukeratu zuzenena.
- a) Pirinioen inguruan kokaleku ezin hobea aurkitu zutelako etorri berriek eta hemen etengabe iraun duelako etnia horrek.
 - b) Andoni Lizarralde etnologia-iralasleak hainbat aztarnategietan ikusi duelako.

Testuaren formari buruzko gogoeta egitea

Ikaslearen ezagupenei buruzko galderak.

6. Testua kontuan hartuta, zer ikasi duzu zure inguruneari buruz?
- a) Andoni Lizarralderen biografiaren zati bat ezagutu dut.
 - b) Gizadiaren jatorria eta bilakaera ezagutu ditut.
 - c) Euskadin dauden Cro-Magnongo gizakiaren aztarnategi arkeologikoak ezagutu ditut.

Testuaren estilo eta erregistroari buruz.

7. Zure ustez, zein estilo eta espresio-tresna erabili du testuaren egileak?
- a) Egileak azaldu nahi du hizkuntza maila jaso erabiliz, nola sortu ziren lehendabiziko "homoak".
 - b) Egileak azaldu nahi du era erraza eta sinplean, irakurle guztiek ulertzeko moduan, nola sortu ziren lehendabiziko gizakiak.

Arloa: Musika

Jardueraren testuingurua

Ikasgelan edo, kasu honetan, kontzertu batean proposatzen diren musika entzunaldiek aurretiko prestaketa daramate. Aurretiko saio horretan hurrengo puntuak lantzen dira: Konpositorearen bizitza eta lana, lanetan agertzen diren musika-tresnak, instrumentu taldeak, eta lanaren zati garrantzitsuenak.

Jarduera honetan, entzunaldia gai honi buruzkoa da: “animaliak” eta horretarako Frantziako inpresionismo garaiko bi lan aukeratu dira: C. Debussyren “*Faunoren bazkalondoari preludioa*” eta C. Saint-Saënsen “*Animalien inauteria*”.

Zati hau “*Animalien inauteria*”en esku-egitaraukoa da, “Abao Txiki”ko 2005-2006 denboraldian antolatutakoa.

Testua

C. DEBUSSYren Biografia



Claude Debussy frantses musikagile bat izan zen (1862-1918), aurreko musikarekin zerikusirik ez zeukan musika egin zuena, eta musika sortzeko zeukan era ezin bereziagoari inpresionismoa deitu zioten.

Bere lan garrantzitsuenen artean, *Jolasak* baleteko musika, *Itsasoa* orkestra-poema, eta *Pelléas eta Mélisande* opera daude. Gainera 24 preludio oso eder konposatu zituen, gaur horietariko bat entzungo duzu, *Faunoaren Bazkalondoari Preludioa* izenekoa. 32 urte zituela konposatu zuen, Mallarmé bere lagun poetaren bertso batzuetan oinarrituta.

C. SAINT-SAËNSen Biografia

Camille Saint-Saëns frantses musikagile eta piano-zein organo-jole bat izan zen (1835-1921). Bakarrik hiru urte zituela pianorako melodia txikiak idazten zituen, eta hamar urterekin lehen kontzertua eman zuen. Bere lan ospetsuenen artean daude *Sanson eta Dalila* opera eta entzungo duzun suite hau, *Animalien Inauteria*. Bizi izan zen bitartean ez zuen jendaurrean lan hau interpretatzeko baimenik eman, partituran beste musikagile batzuen lanei barre egiten zuelako.



Galderak

Informazioa eskuratzea

1. Idatzi entzungo dituzun obra musikalen tituluak eta autoreak?
2. Zerk inspiratu zuen Debussy entzungo duzun lana idazteko?
3. Zein instrumentu jotzen zituen Camille Saint-Saënek?
4. Zergatik ez zuen nahi Saint-Saënek lan hau publikoan interpretatuta izatea?

Testua interpretatzea

5. Jarduera honetan, gauza asko komunean dituzten bi autore eta bi obra desberdinen entzunaldia proposatzen da. Adierazi horietako hiru.

Testua bere osotasunean ulertzea

6. Testua nondik atera da eta zer helburuz idatzita dago?

Testuaren edukiari buruzko gogoeta egitea

7. Testuaren informazioa autore inpresionista hauek hobeto ezagutzeko baliogarria iruditzen zaizu?
8. Irakurri duzunaren artean, zer iruditzen zaizu nabarmena?

Arloa: Ingelesa

Contextualization

Children are naturally inquisitive and they generally adore the topic of dinosaurs. This is part of a didactic unit for Primary 4, where students are asked to make an oral presentation about a dinosaur they chose after reading the information below and researching about their dinosaur

Text

Millions of years ago, before there were any people, our planet was full of dinosaurs. Dinosaurs lived during the "Age of Reptiles."



Dinosaurs were reptiles and most were born from eggs. Dinosaurs could not fly and could not live in the water.



Plant-eating sauropods were the largest animals to walk on Earth.

The largest dinosaurs were over 30 m long and up to 15 m tall (like [Argentinosaurus](#), [Seismosaurus](#), [Ultrasauros](#), [Brachiosaurus](#), and [Supersaurus](#)). The smallest dinosaurs, like [Compsognathus](#), were about the size of a chicken.

It is very difficult to imagine the noise dinosaurs made, how they behaved or what they looked like.



No one knows what colour or patterns the dinosaurs were.



Most dinosaurs were plant-eaters (also called herbivores). For example, [Triceratops](#).



Some dinosaurs were meat-eaters (also called carnivores). For example, [T. rex](#) was a meat-eating dinosaur.

There were lots of different kinds of dinosaurs that lived at different times.

- Some walked on two legs, some walked on four. Some could do both.
- Some were very fast (like [Velociraptor](#)), and some were slow (like [Ankylosaurus](#)).

The oldest known dinosaur is Eoraptor, a meat-eater from about 228 million years ago.

The dinosaurs mysteriously disappeared 65 million years ago. There are a lot of theories why the extinction occurred. The most accepted theory says that a very heavy asteroid hit the earth.



There was an explosion and this caused tons of dust that covered our earth blocking out sunlight for as long as five years. That was how plants died and the dinosaurs lost their food.

ADAPTED FROM: <http://www.enchantedlearning.com/subjects/dinosaurs/allabout/>

Questions

Global Comprehension

1. Which is the best title for this text?
 - a. Dinosaurs 50 million years ago.
 - b. The Age of Reptiles .
 - c. Dinosaurs: land and sea animals.
 - d. What is a Dinosaur?
2. There were lots of different kinds of dinosaurs according to...
 - a. what they ate and the number of legs.
 - b. what they ate, their speed and the number of legs.
 - c. their size, what they ate, their speed and the number of legs.
 - d. their size, what they ate, their speed, the number of legs and their colour.

Interpretation

3. Dinosaurs disappeared because
 - a. enemies killed them.
 - b. an explosion killed them.
 - c. they could not adapt to climatic changes.
 - d. they were killed by an asteroid.
4. The largest animal to walk on Earth was herbivore / carnivore.
5. In the passage, the word *pattern* means:
 - a. how big or small something is.
 - b. how fast something moves or happens.
 - c. a design of lines, shapes, colours.
 - d. how something is done.

Reflection about the content

6. The first dinosaurs were similar to reptiles because
 - a. they were born from eggs.
 - b. they could fly.
 - c. they could live in the water.
 - d. they were plant eaters.
7. Imagine you are one of the dinosaurs you read above before, which one would you like to be? Why?

Reflection about the form

8. Some words in the text are underlined and written in a different colour (blue). There is a hyperlink in them. What will you find there?

Arloa: Arte Hezkuntza: Plastika eta Ikus-Hezkuntza

Proposamenaren testuingurua

Testu honen irakurketa LHko laugarren mailari zuzenduta dagoen unitate didaktiko batean txertatuta dago. Testuaren irakurketaren helburua da errepresentazioa irudimenaren eraikuntza bezala ulertzea; objektu errealean edo irudimenezkoen ikus aldearen errepresentazioa dela. Eskultura kasu honetan, eta artea orokorrean, aldi berean, objektu eta errepresentazioa izan daitekeela, hau da, espazioa eta irudia izan daitekeela.

Ikasleek behaketa, irakurketa, esperimendazioa... jardueren bidez, arteak komunikatzeko erabiltzen dituen baliabideak aztertuko dituzte (sinplifikatzea, desitxuratzea, zatikatzea, tamaina, argia eta kolorea...). Horretarako, irudi sorta bat egin eta arrazoitu egin behar dute. Irudi sorta horretan kolore, enkadratze, argitasun... efektu desberdinak aplikatuko dituzte, PHOTO OP aplikazioa edo Sumopaint editorea erabiliz.

Testua

IKASBIL ALDIZKARI DIGITALA. Autorea: Juanjo Dorronsoro.

Fernando Botero. OSPAKIZUNA

2012/11/08



Fernando Boterori inoiz egin zaion erakusketarik handienetakoa da Bilboko Arte Ederren Museokoa. 79 pintura eta *Zaldia bridekin* eskultura dira Bilbora ekarritako artelanak. Obra gehienak bere bilduma pribatukoak dira. Lina Botero, bere alabak, egin du artelaren aukeraketa. Erakusketa honekin Bilboko Arte Ederren museoak bere gorazarrea eskaini nahi dio aurten 80 urte bete dituen artistari.

Botero kolonbiarra da. Medellinen jaio zen 1932an. Bere ibilbide artistikoa ilustratzaile bezala hasi zuen. Hogei urterekin Madrilgo San Fernandoko Arte Ederren Akademiara joan zen pinturako ikasketak egitera. Italian eta Frantzia barrena bidaiatu ondoren, Florentziako San Marcos Akademian freskoak margotzeko teknika

landu zuen. 1956. urtean Mexikora joan zen Rivera eta Orozco pintoreen muralak edo horma-irudiak aztertzeraz.

Fernando Botero

60ko hamarkadan bolumenak artegintzan duen garrantziaz jabetu eta bere errealismo magikoa lantzen hasi zen. 70eko hamarkadan, pintura-lana erabat utzi gabe, eskulturari heldu zion. Brontzez eta erretxinez, oihalean gauzatutako irudien antzeko eskultura monumentalak egin zituen.

Eskultura handi hauek Parisko Champs-Élysées-en, New York, Buenos Aires eta Madrileko hiribideetan erakutsi ditu.

Boterok arteaz ikuspegi berezia du. Bere hizkuntza artistikoa oso pertsonala da. Bai koadroetan eta bai eskulturetan, bolumenaren garrantzia azpimarratzen du. Tamaina naturaleko baino handiago edo lodiagoak diren irudiak margotzea du gogoko. Neurritz kanpoko abere eta pertsonaiak egiteko teknika honi "Desproporción de lo real" deitzen zaio. Formen gehiegizko bolumena edo oparotasuna da bere artegintzaren ezaugarria. Irudi hauek, lehen begirada batean, burlatiak ematen dute, baina bere helburua ez da barrea edo irribarre gozoa eragitea, bizitzako zenbait jokabide salatzea baizik. Ironiaz betetako hizkuntza honek batzuetan gai

gogorrak irudikatzeko balio du. Irakeko “Abu Ghraib” espetxeko torturei buruz egindako marrazki eta pinturak dira horren adibide.

Boteroren pintzelkada askea da. Bere artelan batzuk naif ukitua dute eta besteek esanahi surrealista. Landutako gai gehienak eguneroko bizimodutik hartutakoak dira: zezenketak, herrietako jaiak, pailazoak, malabaristak, natura hilak, bainugelako edo logelako eszenak eta abar.

Boterok bere artelanak ez ditu edozein tokitan egiten. Eskulturak Toscanan, Italian, moldeatzen ditu. Parisen, berriz, koadroak margotu ohi ditu eta New Yorken pastelak eta akuarelak. Mexiko eta Kolonbiako etxeetan marraztea du gogoko.

Fernando Boteroren erakusketa antologikoa urtarrilaren 20ra arte egongo da ikusgai, Bilbon.

http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/artikuloaren-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_q8LS&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=1149029

Galderak

Informazioa eskuratzea

1. Ba al dakizu zer egiten duen Fernando Boterok?

Testua bere osotasunean ulertzea

2. Zeri buruz hitz egiten du testu horrek?

3. Parekatu irudia testu horretan agertzen den benetako zaldi batekin. Egizu taula bat dituzten alde komunak eta dituzten alde desberdinak aipatuz.

Testuaren edukiari buruzko gogoeta egitea eta edukia balioestea

4. Uste duzu Fernando Boterok urte asko daramatzala arte munduan? Azaldu zergatia.


Arloa: Euskera eta Literatura

Jardueraren testuingurua

Irakurketa jarduera hau proiektu zabalago baten baitan txertatzen da. Ikastetxean *Eraso eta Bazterkeriaren aurkako kanpaina* abiaraziko dute, eta ikasleen iritzia jaso nahi dituzte, eurek eskolan bizi edo ezagutu dituzten egoera arazotsuak azalerratu, eta horien inguruko makina bat jarduera antolatzeko (mahai-inguruak, erakusketak, solasaldiak...).

Horretarako, egoera horiek kontatuko dituzte gutun bidez. Baina, lehendabizi, abiapuntu gisa, gutunak irakurriko dituzte egitura eta atalei erreparatzeko.

Testua



Donostian, 2008ko martxoaren 20an

Ikasleak, agur:

Hilabete honetan gure eskolan “Eraso eta Bazterkeriaren aurkako kanpaina” jarri dugu martxan.

Denon arteko giro egokia izan nahi dugu, denok gustura senti gaitezen. Hala ere, askotan suertatzen dira egoera desatseginak gure artean eta horiek konpondu eta gainditu nahi ditugu.

Kontatuko edo deskribatuko dizkidazue eskolako esparru desberdinetan ematen diren egoera desatseginak? Gelan, jolastokian, jantokian, kirolean...

Eskerririk asko aldeztu aurretik, eta jaso ezazue nire agurrik beroena.

Eskolako zuzendaria

(iturria: Bazterkeriaren aurka <http://nagusia.beritzeguneak.net/hizkuntzak/descargas/3htb/3111Iragarkia.pdf>)

Galderak

Testua bere osotasunean ulertzea

1. Zein da testuaren zentzua hobekien biltzen duen esaldia?

- a) Zuzendariak ikasleei idatzi die bidegabekeriak direla eta laguntza eskatzeko.
- b) Zuzendariak ikasleei hitz egin die.
- c) Zuzendariak ikasleak animatu nahi ditu idatz ditzaten.

2. Testu honen helburua da

- a) Ikastetxeko informazioa ematea.
- b) Gertatu den zerbaiti buruzko informazioa ematea.
- c) Informazioa ematea eta irakurleak konbentzitzea.

Informazioa eskuratzea

3. Noiz ospatuko da zuzendariak aipatzen duen ekitaldia?

- a) Ikastetxean, edozein hilabetetan.
- b) Aste honetan urtarrilean zehar.
- c) Ikasleek erabakitzen dutenean.
- d) Urtarrilean.

4. Zer lortu nahi dute eskolan kanpaina horren bidez?

Testua interpretatzea

5. Zuzendariak testu hori idatzi du...

- a) Ikasleak parte hatzera animatzeko.
- b) Ikasleei jakinarazteko zer nolako ekitaldiak izango diren aste horretan.
- c) Ikasleei laguntza eskatzeko.

6. Ondoko hitzetatik zein erabil dezakezu kanpaina hitzaren ordeztan?

- a) Saiakuntza
- b) Ekitaldia
- c) Garaia

Testuaren edukiari buruzko gogoeta egitea eta balioestea

7. Testua idatzi duenak zer jarrera du gaiari buruz?

- a) Oso baikorra, uste baitu denen artean arazoak konpon daitezkeela.
- b) Oso pesimista, ikastetxean arazo asko daudelako.
- c) Triste dagoela esan daiteke.

Testuaren formari buruzko gogoeta egitea eta balioestea

9. Zenbat atal ditu testu honek?

9. Zertarako jarri behar da data?

10. Testu honetan EZ dago hauetariko bat, ez da behar eta:

- a) Igorlea
- b) hartzailea
- c) data eta tokia
- d) helbidea

Área: Lengua y Literatura Española

Contextualización de la actividad

Se propone la lectura de este texto al alumnado de 4º de Primaria. El texto se utiliza en un Proyecto interdisciplinar que trabaja Conocimiento del Medio y Lengua Castellana y Literatura relacionado con la importancia de una alimentación saludable. La producción final del proyecto es elaborar un menú tipo para la semana y un decálogo con consejos para alimentarse de manera adecuada. El texto se utiliza en una actividad inicial para propiciar la reflexión sobre los hábitos de los alumnos y alumnas y establecer un primer debate sobre el tema que sirva de acercamiento al mismo. Por ello, el foco de la lectura se centra en el sentido global del texto y en su finalidad.

Texto

http://revista.consumer.es/web/es/20130101/pdf/revista_entera.pdf

por tu salud

TIX & LOY
Un goloso tentempié

Hasta mañana chicos.
Menos mal que ya ha acabado, me estaba muriendo de hambre...

¿No puedes esperar a la comida? Que nos vamos ya a casa...

¿Gominolas otra vez? No es bueno tan a menudo...

Y menos entre horas... Hay que comer cuando toca y no cada vez que quieras, Ram.

¡Tix, no empieces! Tengo hambre ahora...

Eso mismo dice mi madre, pero yo estoy como un roble.

Pues te convertirás en un roble entero como no comes mejor.

¿Y eso quién lo dice? Si eso es cierto me paseo como un payaso por el barrio. Cuánta tentería...

¡WUYYYY!! ¿Qué te pasa?

Ram, los dulces son para tomar de vez en cuando porque tienen mucho azúcar y pocos nutrientes.

Creo... Creo... que no me encuentro muy bien...

Te llevaremos a casa.

Yo creo que nunca se le olvidará que las golosinas deben comerse con moderación y de vez en cuando...

¿Qué tal te queda la nariz de payaso?

Por cabezonería Ram no hizo caso a sus amigos y tuvo que aprender por la fuerza que tantas golosinas no son saludables. Pero ahora, ni ella ni sus amigos olvidarán nunca que las chucherías no deben consumirse de forma habitual ni en grandes cantidades.

ESCUELA DE NUTRICIÓN Programa Educativo sobre Alimentación y Hábitos Saludables

FUNDACIÓN EROSKI contigo

Cuestiones

Comprensión global

1. Busca un nuevo título para el cómic.
2. ¿Cuál es la finalidad de este cómic?:
 - a) Contar una historia
 - b) Describir a unos amigos
 - c) Informar sobre las golosinas
 - d) Dar un consejo
3. Resume en 3 líneas el contenido del texto

Interpretación y valoración

4. ¿Qué ocurre en la viñeta número 6? Explícalo
5. ¿Qué relación hay entre las viñetas 3 y la 6? Explícalo

Reflexión sobre el contenido del texto

6. ¿Crees que lo que aparece en el cómic puede ocurrir? ¿Te parece algo real? Coméntalo.

Reflexión sobre la forma del texto

7. ¿Qué quiere decir la palabra “*robledal*” en esta viñeta?





**IRAKURTZEKO
GAITASUNA**

Irakurriaren ulermena
ebaluatzeko jarduerak

BIGARREN HEZKUNTZA

Ikasgaia: Teknologia

Jardueraren testuingurua

DBH2ko ikasleekin irakurketa erreflexiboa egiteko asmotan aukeratu da testu hau.

Elhuyar aldizkarian argitaratutako artikulu baten zatiek osatzen dute. Artikulu osoa [hemen](#) dago.

Testu hau ikasleek elektrizitate inguruan proiektu bat lantzen ari diren momentuan erabiltzeko da. Irakurketa honen helburua energia aurrezteko ematen ari diren urratsak aztertzea da, kasu honetan LEDak ditugu aitzaki. Aldi berean aprobetxa daiteke LEDaren zabalkundea aztertzeko; inguratzen gaituzten zenbat gailutan kokatzen diren...

Testua

ARTIKULUA: Elhuyar 279 alea LED. Argia aldatu da

Argia sortzeko modua aldatu da. Wolframiozko hari goriaren sistema, ohiko bonbilla, zaharkituta dago. Eta merkuriozko lurrun bati fluoreszentzia eragitekoari, hodi fluoreszenteari, lehiakide indartsu bat agertu zaio: LED argia. Aspaldiko asmakuntza da, baina azken hamarkadetan izan dituen aurrerapenek puntako teknologiarara bultzatu dute. Eta, adituen ustez, bi edo hiru urteren buruan, iraultza handia ekarriko du.



Argia igortzen duten diodoek, LED argiek, EAEko kaleak hartu dituzte, ohiko bonbillen ordeztuz; semaforoetan daude, batez ere. Azken bi urteetan izan da aldaketa nagusia. Bilbon, Gasteizen eta Donostian, adibidez, 2010. urtean ordezkatu dituzte ohiko bonbillak semaforoetan. Oraindik ere badira batzuk, baina oso gutxi. LEDak nagusi dira. Eta semaforoak adibide bat besterik ez dira. "Iraultza orain ari da gertatzen", dio Gemma Garcia CEITeko ingeniariak.

Izan ere, kaleko argiztapenean ere LEDek zer kolonizatu asko dute oraindik. Munduko hiri askotan ikusten den bezala, orain arteko joerari eusten bazaio, laster faroletan, tuneletan, aparkaleku publikoetan eta abarretan izango dira. Herri txikiak horrelako instalazioen probak apartak izan dira. Tolosan, adibidez, Pedro de Tolosa kalea dago LEDen bidez argituta.

Bestalde, Europako hiri handi gehienetan hasi dira erabiltzen LED argiak kale batzuk argitzeko: Paris, Londres, Berlin, Praga, Varsovia, Amsterdam eta beste asko. Herbeheretan, A44 autopistako zazpi kilometroko tarte bat argitu dute LED argien bidez. Eta, Istanbulen, Bosforoko zubiaren bidea ere LED bidez argituta dago. Estatu Batuetan, Ipar Carolinako Raleigh hiria izan zen lehenengoetakoa proba egiten, eta, arrakastatsua izan denez, dagoeneko zabaldu da kaleko LED bidezko argiztapena; New York eta Washington dira horren adibide. Zerrenda luzea da, eta emaitzak, oro har, onak.

LED ZAHARRA, HEROI BERRIA

Gutxi kontsumitu eta asko irauten dute LED argiek; horregatik dira hain arrakastatsua. Nahiz eta ez izan merkeak, urte batzuetan amortizatzen da instalazioen kostua. Eta baditu beste abantaila batzuk.

Neurri batean, LEDen abantailak ezezkoetan laburbil daitezke. Ez du berorik sortzen, gastatzen duen energia gehiena argi bihurtzen baitu. Ez du bonbillen hari fina bezalako pieza hauskorrik. Ez dago osagai arriskutsuz eginda, ezta ingurumenerako kaltegarriak diren osagaiz ere. Abantailak nabarmenak dira.

Eta asmakuntza zaharra da: LEDa 1927an asmatu zen, eta 1960ko hamarkadan sartu zen industrian. Hori horrela izanik, zergatik ez dira lehenago erabili? Esan behar da zenbait aplikaziotarako duela ia 50 urte hasi zirela erabiltzen.

Makina edo etengailu bat piztuta dagoela adierazten duen argitxo gorria LEDa izan da ordutik. Eta zazpi segmentuko zerbaki elektronikoz zaharrak egiteko ere erabili izan dira. Bi kasuetan, baina, LED gorriak ziren; eta horretan datza galderaren erantzuna. Lehenago ez dira beste ezertarako erabili, beste kolore bateko LEDik ez zegoelako. Lehenengoak gorriak izan ziren; gero, 1970eko hamarkadan, LED berdeak, laranja eta infragorriak garatu zituzten; eta LEDen fabrikazioaren inflexio-puntua 1990eko hamarkadan etorri zen, Shuji Nakamura ikertzaile japoniarrek lehen aldiz lortu baitzuten LED urdinak egitea.

LED ZURIA

Hasieran, galio nitruroak, eta, gero, indio-galio nitruroak ahalbidetu dute LED zuria toki guztietara zabaltzea: kaleko argiztapen publikora, etxeetako argietara, autoen argietara, barkuetako argietara (interneten asko zabaldu da LED argiaren aipamena belauntzien zaleen artean, adibidez) eta beste aplikazio askotara. LEDen ezaugarri bat da oso argi txikiak izatea. Ia edozein tokitan instalatu daitezke, eta bonbilla handi bat ordezkatu behar badute, LED asko elkarrekin instalatzeko aukera dago. LED bonbillak eta semaforoetakoak, adibidez, horrelakoak dira.

Galderak

Testua bere osotasunean ulertzea

1. Bi lerrotan idatz ezazu zein den artikulu honek dakarren mezua.
2. Ideia hau egiaztatu edo indartzen duten beste artikulu bat edo bi bila itzazu.
3. Artikulu honi beste izenburu bat jar diezazkizue.

Testua interpretatzea

4. Gure inguruan non jarri dituzte LED hauek. Nola bereizten duzu kalean bonbilla den ala LEDa den. Zein da LEDak erabiltzearen helburua.
5. Zeintzuk dira zure ustez, funtzionamendu aldetik, bonbilla eta LEDaren arteko diferentziak.

Testuaren edukiari buruzko gogoeta egitea eta balioestea

6. Zuri LEDak zer ondorio on edo txar dakarrela iruditzen zaizu?
7. Ikertu ezazu zein den Shuji Nakamura.
8. Telebistak ere LED erakoak daude. Artikuluan azken orrian irakur dezakezu. Saia zaitetz telebista erosi nahi duen bati esplikatzen LED, LCD eta OLED zer esan nahi duten.
9. Aurkitu nolakoak diren argi emaile desberdin hauek:
 - a. Wolframiozkoa
 - b. Merkuriozkoa
 - c. Hodi fluoreszentea

Ikasgaia: Natur Zientzia

Jardueraren testuingurua

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleentzat prestatutako jarduera da honakoa. *Landare loreduen bizitza ezkutua* sekuentzia didaktikoaren azken ataza moduan proposatzen da.

<https://sites.google.com/site/zientziahezkuntzaekimena/landare-loredunak>

Testua lantzeko irakurketaren hiru prozedura landuko dira: informazioaren bilaketa, interpretazio baten elaborazioa eta testuaren edukiaren balorazioa. Ikasleek testua irakurtzeaz gain, informazio osagarria bilatu beharko dute.

Bukaerako ataza moduan, Munduko Hazi Kriptaren arduradunei eskutitz bat prestatzea eskatuko zaie Euskal Herriko landare autoktonoen haziak gordetzea proposatzeko.

Testua

Haziak hondamendietatik gordetzeko ahalegina

2008/04/06 Lakar Iraizoz, Oihane - Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Milioika hazi gordeko dituen biltegi bat inauguratu berri dute Norvegiar, Ipar polotik 1.000 bat kilometrora dagoen Svalbard uhartean; Munduko Hazien Kripta (Global Seed Vault) izena jarri diote.



Hiru gelak eratzen dute biltegia, mendiaren barruan 125 metro sartzen den tunel baten bukaeran (Argazia: M. Tefre/GCDT)

Uharte horretako mendi izoztu baten barruan egin dute biltegia: hiru gelak eratzen dute mendiaren barruan 125 metro sartzen den tunel baten bukaeran. Barruan, mundu osoko nekazariek hazten dituzten espezie eta barietate nagusien hazi-laginak gordeko dituzte, hala nola

arrozarenak, artoarenak, gariarenak edo sorgoarenak. Guztira, 4,5 milioi hazi-lagin gordetzeko lekua dauka biltegiak, eta lagin bakoitzak ehunka hazi izan ditzake.

Nekazaritzan erabiltzen diren espezieen eta barietateen dibertsitateari eustea da proiektu horren helburua, ezinbestekoa baita gene-dibertsitate minimo bat izatea gaur egun elikagai-iturri nagusi diren laboreei eutsi ahal izateko. Leku jakin batean, edo mundu osoan, hondamendiren bat gertatuko balitz, orain arteko nekazaritzarekin berriz hasteko modu bat bermatu nahi dute horrela.



Ipar polotik hurbil dagoen eremu batean egin dute biltegia, horrek bermatzen baitu inoiz urtzen ez den izotz-geruza bat izango duela (Argazkia: GCDT)

Ipar polotik hurbil dagoen eremu batean egin dute, horrek bermatzen baitu inoiz urtzen ez den izotz-geruza bat izango

duela biltegiak (permafrost deritzo izotz-geruza horri). Hala, haziak tenperatura- eta hezetasan-kondizio jakin batzuetan gordetzeko erabiltzen duten sistemak huts egingo balu, ez lukete haziok galtzeko arriskurik izango, mendiaren izotzak berak beharrezkoa den tenperaturari eutsiko liokeelako. Zero azpitik 18-20 gradutan gordeko dituzte, eta hezetasan-maila ere oso txikia izango da, hazien metabolismo-jarduera txikia dela ziurtatzeko.

Metabolismoa motelduta dutenean, haziak loak hartuta bezala gelditzen dira, ez dira ernetzen, ez dira zahartzen, ez dira hiltzen... hau da, kondizio normaletan baino askoz luzeago irauten dute. Erabiltzeko ordua iritsitakoan ernetzeko behar dituzten kondizioetan jarrita, haziak gai dira motelduta zuten metabolismoa berrabiarazteko.

Denak asetzen ez dituen proiektua

Ziurtzat jo dute haziak kondizio onetan gordeko dituztela eta, baliogarriak izango direla handik ateratakoan. (Argazkia: WARDA)

Itxuraz alde ilunik ez duen ekintza horrek, dena den, trabak batzuk baditu. Adibidez, ziurtzat jo dute haziak kondizio onetan gordeko dituztela eta, behar izatekotan, baliogarriak izango direla handik ateratakoan. Baina ez dute inola ere frogatu horrelakorik.

Ez da munduan egiten den lehenengo hazi-biltegia; 1.500 inguru daude, eta behin baino gehiagotan gertatu da milaka hazi hil direla gordeta egon diren bitartean; beste asko erabilgaitz gelditu dira behar bezala ez maneiatzegatik, eta zenbatezinak dira horrelakoetan ezaugarri bereziak galdu dituzten haziak, berreskuratzeko bidean edo ugaltzeko orduan beste hazi batzuen geneekin nahasi direlako.

Gainera, proiektuaren bideragarritasunari buruzko azterketa egin zutenean, esan zuten Svalbard uhartean ez zegoela, ez sumendirik, eta ez lurrikara-jarduera nabarmenik. Bada, inauguratzeko egun gutxi batzuk falta zirela, Norvegiako historiako lurrikararik bortitzena gertatu zen, eta epizentroa Svalbard bera izan zen.

Bestalde, edozeinek ezingo ditu eskuratu edo erabili gordetako hazi horiek. Erakunde jakin batzuetako kideek bakarrik izango dute horretarako aukera, eta ez une jakin batean haziak beharko dituen edonork. Gainera, biltegiaren azkeneko arduraduna Norvegiako gobernu da. Gaur egun, zuzen eta fidagarritzat jotzen da gobernu hori, baina ez dago esaterik aldatuko ote den.

Hau da, proiektu hau ez da panazea, ez da gizateria salbatuko duen erremedioa. Dena den, ezin da esan zentzugabea denik; ez da txarra nonbait gordeta izatea hondamendi bati aurre egiten lagun dezakeen modu bat. Zuhurtziaz hartu behar dira horrelako berriak; aukera onena da.

7K-n argitaratua. <http://zientzia.net/artikuluak/haziak-hondamendietatik-gordetzeko-ahalegina/>



Galderak

Informazioa eskuratzea

1. Non dago Svalbard? Kokatu mapa batean eta bilatu haren ezaugarri geoklimatikoak.
2. Zergatik egin dute eraikuntza hori Artikoko toki horretan?
3. Zeintzuk dira aipatzen diren alde txarrak?

Testua interpretatzea

4. Zergatik ematen zaio hainbeste garrantzi “hezetasun gutxiko tokia” izateari?
5. Zure ustez, Brasilen antzeko bat egin liteke? Zergatik?

Testuaren edukiari buruzko gogoeta egitea eta balioestea

6. Zergatik ematen zaio hainbesteko garrantzia “dibertsitateari”?
7. Brasilen antzeko bat egin al liteke? Zergatik?
8. Hondamendiak aipatzen dira. Zein hondamendi motak deuseztatu dezake inguru bateko landaretza?
9. Zure ustez, zein izan behako litzateke kripta horren arduraduna?

Ikasgaia: Musika

Jardueraren testuingurua

Kontzertu batera joatea ikas-irakas jarduera bat da testuinguru ez-formal batean. Aktibitate honek ikaslearekin aurretiko prestaketa bat behar du, antolaketa ikuspuntutik (Kontzertuaren hautaketa, kontzertura joatea eta jarrera arauak) eta entzungo dituzten musika obren ulermearen ikuspuntutik.

Kontzertuaren ulermen aktibitatean erabiltzen den tresna bat, kontzertua jarraitzen duen esku-egitaraua da.

Esku-egitarauetan, lanak eta lanei dagozkien mugimenduez aparte, interpretearen "curriculum"aren aipamen labur bat eta, kasu askotan, entzungo diren obren iruzkin labur bat agertzen dira.

Hurrengo zatia 2011-2012 denboraldiko Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kontzertu baten esku-egitarauari dagokio.

Testua

Egitarauari Oharrak
Notas al Programa



Die Zauberflöte (La flauta mágica), KV620. Obertura

Wolfgang Amadeus Mozart
Salzburgo, 27 de enero de 1756 – Viena, 5 de diciembre de 1791

Vienako Theater auf der Wieden-en 1791ko irailaren 30ean ezagutzera emana, hau da, egilea gazte hil aurretik bi hilabete lehenago gutxi gorabehera, *Flauta mirezgarria* obra gogoangarria da zeharo, Mozartek antzerki arloan egindako ibilbidean ez ezik genero berezi batean ere *Singspiel* izenekoa, alemanez abestuta hitzezko pasarte ugari eta ia beti argumentu komikoak biltzen dituen pieza eszenikoa-, ondoren, egun hartatik hainbesteko inspirazio eta sakontasun maila lortuko ez zuena.

Flauta mirezgarria obraren konposizioa 1791ko maiatzean hasi zuen Mozartek. Uztailean eten zuen lan hura *Titoren erukitasuna* ustekabez eskatu ziotenean. Hala, Salzбургoko musikariak irailaren 28an amaitu zuen partitura, estreinatua baino bi egun lehenago.

Beethovenek eta Wagnerrek hainbeste miretsitako *Flauta mirezgarriak* hauxe biltzen zuen Busoniren hitzetan "liluratzen duen musika, edo, hobe esanda, guztia blaitu eta dena barnean hartzen duena".

Dada a conocer en el Theater auf der Wieden vienes el 30 de septiembre de 1791, es decir, poco más de dos meses antes de la temprana muerte de su autor, *La flauta mágica* señala un hito incontestable no solo en la carrera teatral de Mozart; también en la de un género, el *Singspiel* (pieza escénica cantada en alemán con abundantes pasajes hablados y argumento casi siempre cómico), que nunca después de aquella fecha alcanzaría cotas de inspiración y profundidad semejantes.

Mozart inició la composición de *La flauta mágica* en mayo de 1791. Suspendida la tarea en el mes de julio para poder acometer el inesperado encargo de *La clemencia de Tito*, el músico salzburgués concluyó la partitura el 28 de septiembre, tan solo dos días antes de su estreno.

Admirada incondicionalmente por Beethoven y Wagner, *La flauta mágica* contenía para Busoni "una música que fascina, o, mejor dicho, que empapa todo y todo lo abarca".

Galderak

Informazioa eskuratzea

1. Wolfgang Amadeus Mozarten jaiotza eta heriotza data eta lekua aipatu.
2. “Txirula magikoa” operaren zein zati interpretatuko da kontzertuan?
3. Zer da “Singspiel”a?

Testua bere osotasunarean ulertzea

4. Testuaren ideia nagusiak laburbildu.

Testua interpretatzea

5. Adierazi “Txirula magiko”ari buruz zer uste duen Busonik, hitz desberdinak erabiliz.

Testuaren edukiari buruzko gogoeta egitea

6. Testuaren informazioa osoa eta argia dela iruditzen zaizu? Zergatik?
7. Testuak ematen dituen gertakari datak (autorearen heriotza edo obraren aurkezpena) beste gertakari batzuen datuetan ezkutatuak daude. Adierazi horietako batzuk.

Testuaren formari buruzko gogoeta egitea

8. Zein atalek osatzen dute testua?

Ikasgaia: Atzerriko Hizkuntza. Ingelesa

Contextualization

There's something about an extreme sport that attracts men and women to take that plunge and just go for it. It could be the adrenaline rush that comes with the act of participating in it.

This reading is part of a didactic unit for Secondary 2, where students are asked to make a digital presentation (Glogster) about different extreme sports after reading the information about parkour below.

Text



A new sport takes over a city.

What is parkour? The answer is not simple. Parkour means different things to different people. Some people call it a sport; some people call it a "physical discipline". People (mostly young men), run, jump, and climb over obstacles. This is the central idea of parkour: overcoming obstacles, whether they are mental or physical. People practice parkour mostly in urban environments, but also in parks and other natural places.

It is difficult to talk about the history of parkour because it has not been thoroughly researched. Some of the things that traceurs (people who do parkour) do now, people have been doing for a long time. For example, when humans hunted tens of thousands of years ago, they were running and avoiding obstacles to catch their prey. There are also similarities between parkour and martial arts such as Kung-Fu, which people have been practicing for a long time.

Modern parkour first started in France. There was a small group of young men living near Paris that started practicing what we now know as parkour. These men included David Belle, Sebastien Foucan, Kazuma and Stephane Vigroux, Yahn Hnautra, David Malgogne and Frederic Hnautra. But it is David Belle who has gotten the most credit for founding and promoting parkour. These men started practicing parkour in the late 1980s and 1990s. Parkour became more popular between 2001 and 2005, when several movies were made about the subject. This helped increase its popularity.

There are many benefits to doing parkour. The most obvious one is improved physical fitness. Another benefit is increased self-confidence and increased self-esteem because being able to perform difficult and challenging movements with your body makes you feel good about yourself. Doing parkour also makes you know yourself better.

Although each person practices parkour in their own way, there are many common movements that all traceurs make. A basic move is the [atterrissage](#), which means "landing" in English. A [passe murailles](#) involves running at something, such as a wall, and climbing over it. Another move is called the [passement](#), which involves going over something using your hands. These are just three moves in parkour, but there are many more.

Although parkour is relatively new, its increasing popularity suggests that it will still be here in the future.

ADAPTED FROM: <http://eslreadinglessons.com/parkour.htm>

Questions

Global Comprehension

1. What is the text about?
 - a) The history of parkour.
 - b) General information about parkour.
 - c) The benefits of practicing parkour.
 - d) Parkour in popular culture.
 - e) Why parkour is dangerous and should be made illegal
2. What is the main idea of paragraph 4?
 - f) People practice Parkour in different places.
 - g) When Parkour became popular.
 - h) How to be safe doing Parkour.
 - i) How Parkour started.
 - j) How Parkour can help people.

Interpretation

3. Which statement is true?
 - k) Parkour is similar to other human activities such as Kung-Fu and hunting.
 - l) Parkour and Kung-Fu are the same thing, because they both involve moving the body.
 - m) Parkour started because people needed to become better hunters.
 - n) Parkour started about 10,000 years ago when people needed to run and jump to hunt for their food.
4. Who was Sebastien Foucan?
 - o) One of the first traceurs.
 - p) The most famous practitioner of parkour.
 - q) The man who invented parkour.
 - r) A famous movie actor.
5. What happened between 2001 and 2005?
 - s) People started to understand the benefits of parkour.
 - t) David Belle started the sport of parkour.
 - u) Parkour became more popular.
 - v) A group of young French men started parkour.

Reflection about the content

6. Which are the benefits of practising parkour? And the risks?
7. Which other extreme sports do you know?

Reflection about the form

8. Why are *inverted commas*/ *quotation marks* used in the text? '
 - w) To cut off a very long paragraph
 - x) To reinforce the meaning of some words
 - y) To give your opinion about the ideas expressed
 - z) To report what someone said.

Ikasgaia: Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Jardueraren testuingurua

Jarduera honen helburua Euskal Herriko historian zehar oso garrantzitsuak izan diren gertaerak ezagutzea da. Kasu honetan, ikasleak murgiltzen dira XIX. mendearen Euskadiko industrializazioaren prozesuan. Testuan prozesu honen ibilbidea, burdinoletatik labegaraietara, ikus daiteke

Testua

Lehen labegaraia

Foruak kendu eta aduanak barrutik kostara (gaur egun daudeneko lekura) eramanda, aldi bati amaiera eman zitzaion. Burdingintzarako *Boluetako Santa Ana* fabrika 1844. urtean inauguratu zen eta data hori aipatu ohi da ekonomiaren alorrean beste aldi baten hasiera gisa. Euskadiko industrializazioa bere lehen urratsak ematen ari zen, eta harrezkero industria izan da Euskadiren jarduera ekonomikoaren zati oso garrantzitsua.

Boluetako Santa Ana industriaren alorrean sortutako lehen sozietate anonimoetako izan zen. Bilboko merkatari-talde batek sortu zuen eta haietako batzuk burdin mearekin tratuan zebiltzanak zirela argitu behar da. Ibaizabalen ertzeko burdinola baten instalazioak erosi zituzten. Burdina lantzeko lantegi hura martxan jartzeko teknikari frantsesei deitu eta makineria inportatu egin behar izan zen. Fabrika hartako labegaraiek artean egur-ikatzaren erretzen zuten. Konpainiak bere meatze eta mendiak zituen, beren burdinaren eta ikatzaren horniketa segurtatzen.

Ohizko burdinolekin konparatuta, Boluetako fabrikak aurrerapena zuen, kalitate hobeko burdina (*burdina xafakorra*) egiten zuelako. XIX. Mende osoan zehar, burdina lantzeko fabrikak ugaltzeaz gain (1854. go *Ntra. Sra. Del Carmen* izenekotik hasi eta 1901. urtean *Altos Hornos de Vizcaya* sortu arte) teknologian ere berrikuntzak izan ziren (kyats minerala erabiltzen hasi ziren labegaraietan, ...). Horren ondorioz Euskadiko ohizko burdinolek itxi egin behar izan zuten. Burdinolek fabrika berriek ekoiztutako kalitate eta kantitatearekin lehia egiterik ez zuten izan.

Bizkaiko burdingintza eta meagintzaren bultzada nagusia, 1856. urtean izandako aurkikuntza baten eskutik etorri zen; altzairua lortzeko Bessemer sistematik, hain zuzen. Sistema horren bidez kostuak txikiagoak ziren eta produkzioak handiak izan zitezkeen. Horregatik, Europako siderurgia nagusi guztietan ezarri zen. Fosfororik gabeko mineralak behar ziren horretarako; European eskas ziren hematiteak, alegia. Bizkaiak ordea, ustiatzen errazak ziren erreserba handiak zituen (Somorrostro-Muskiz aldean batez ere). Gainera itsas portuak bertan zituen eta landutako produktuak erraz esportatu zitezkeen.

"Euskal Historiaren 15 gertaera nagusi". GAIK

Galderak

Testua bere osotasunean ulertzea

1. Zein da testuaren ideia nagusia?
2. Zure ustez, esaldi hauetatik zeinek biltzen du ondoen testuaren ideia nagusia?
 - a. Burdinolek ez zuten lehia egiterik izan fabrika berriek ekoiztutako kalitate eta kantitatearekin.
 - b. Burdingintzako *Boluetako Santa Ana* fabrika 1844.urtean inauguratu zen eta data hori aipatu ohi da ekonomia alorrean aldi berri baten hasiera gisa.
 - c. Bizkaiko burdingintzaren eta meagintzaren bultzada nagusia 1856. urtean egindako aurkikuntza baten eskutik etorri zen; altzairua lortzeko Bessemer sistematik, hain zuzen.
3. Zein da testuaren asmo orokorra?
4. Zure ustez, esaldi hauetatik zeinek biltzen du testuaren egilearen helburua? eta zergatia?
 - a. Egileak altzairua nola egiten den informatu nahi du.
 - b. Egileak azaldu nahi du garrantzi handia izan zutela Bilboko merkatari-talde batek burdin mearekin tratutan zebiltzanekin izandako harremanek.
 - c. Egileak informatu nahi du nola sortu zen industrializazioa Euskadin.

Testuaren erabileraren identifikazioa

5. Zure ustez, beheko argitalpenetatik zeinetan koka daiteke irakurritako testua?
 - a. Boluetako Santa Ana fabrikaren historiari buruzko testuan.
 - b. Bizkaiko gida turistiko baten testuan.
 - c. Ekonomiaren historia testu liburu batean.

Testua interpretatzea eta informazioa berreskuratzea

Ondorioa eta inferentziak:

6. Testua irakurri ondoren, inpresio hauetatik zenekin zaude ados?
 - a. Euskadiko industria-iraultzaren aldaketa guztiak foruak deuseztatu eta barruko mugak aldatu zirenean hasi ziren.
 - b. Euskadiko industria-iraultzaren prozesua luzea izan zen, bitartean hainbat gertaera lagungarri sortu ziren.

Testuaren formari buruzko gogoeta egitea

Bere ingurumariaren ezagupenei buruzko galderak.

7. Testua irakurri ondoren, zer ikasi duzu zeure inguruneari buruz?
 - a. Orain badakit nola desagertu ziren burdinolak Euskadin.

- b. Orain badakit nola bilakatu zen Euskadin burdingintzaren industria.
- c. Orain badakit zergatik aukeratu dituzten ondare kulturaltzat industrializazioaren lekukoak.

Testuaren estilo eta erregistroari buruz.

8. Zure ustez, zein estilo erabili du testuaren egileak?

- a. Egilearen asmoa da azaltzea nola sortu zen industrializazioa Euskadin, hizkuntza maila jaso erabiliz.
- b. Egilearen asmoa da era erraz eta sinplean azaltzea nola sortu zen industrializazioa Euskadin, irakurle guztiek ulertzeko moduan.

Ikasgaia: Plastika eta Ikus-Hezkuntza

Jardueraren testuingurua

Testu honen irakurketa DBHko bigarren mailari zuzenduta dagoen unitate didaktiko batean txertatuta dago. Testuaren irakurketaren helburua honako hau da: agerian uztea euskarri digitalek (telefonoak, taulak, ordenagailuak...) irudiak garatzeko, errepikatzen eta zabaltzeko gaitasuna handitu dutela, eta, batez ere, museoen bilduma eta estilo eta garai desberdinetako hainbat artistaren arte-lanak zabaltzeko.

Bilketa, irakurketa, hausnarketa... jardueren bidez, ikasleek lan bat egin behar dute. Lan horrek beraiek egon ez diren museo baten aretoari buruzkoa izan behar du. Areto horren informazioa jasotzeko Google Art Project erabiliko dute, ondoren taldeari erakusteko.

Testua

2011/11/10

Antonio Lopezen lana iPadera heldu da

Aplikazioak 260 lanen informazioa dakar: margolanak, marrazkiak eta eskulturak. Azkenetan, 360 graduko bira egin daiteke.

Bilboko Arte Ederren Museoak Antonio Lopez artistaren inguruko iPaderako aplikazioa aurkeztu du gaur. Artistaren obra eta ibilbidea jasotzen du aplikazioak, eta xehetasun handiz artelanak ikusi eta aztertzen aukera eskaintzen du...

Antonio Lopezen obra gertutik gertura ikusteko aukera eskaintzen digu TF argitaletxeak kaleratu duen iPaderako aplikazio honetan. Pintzeladak aztertzerainoko gertutasunez aztertu ahal izango direlako margoak, esaterako, eta eskulturak ere inguratu.

Baina ikusteaz gain, sakontzeko aukera ere eskaintzen digu aplikazioak, artelan guztiak, erreferentziako testuez gain, kritikari eta adituen elkarrizketekin horniturik baitaude, eta Bozetoekin ere artelan hori lantzeko aukera dago, baita bestelako informazio osagarriarekin ere. Bere bizitzan ere sakontzeko 200 irudi dokumental, biografia zabala, eta Lopezen inguruko dokumental bat ere jasotzen du aplikazioak. horregatik, Javier Viar Arte Ederren Museoko zuzendariak adierazi duenez, analisirako tresna erabilgarria da oso aplikazioa.

7,90 euroren truke erosi ahal izango da Antonio Lopezen inguruko aplikazioa, eta debalde berritu uneoro.

<http://www.eitb.com/eu/kultura/artea/osoa/772505/antonio-lopezen-lana-ipadera-heldu-da/>

Galderak

Testua bere osotasunean ulertzea

1. Testuan aipatzen den aplikazioaren bidez, Museoan erakusten diren artelanak ikustetik aparte, Antonio Lopez-en beste daturen bat ezagut dezakegu?
2. Eta aplikazio horrekin, Antonio Lopez-en artelan berak ikusiko ditugu beti edo noizbait beste berri batzuk ere ikusi ahalko ditugu? Zergatik?

Testuaren edukiari buruzko gogoeta egitea

3. Esaten dizutenean eskulturak 360 graduko bira batekin ikusi ahal direla, zer ulertzen duzu? Eta zergatik eskulturak eta ez marrazketak?.
4. Arte Ederren Museoaren sarrera ikasleentzat 4,50 eurokoa baldin bada, abantaila izango litzateke 7,99 euroekin, aplikazioaren salneurria, Antonio Lopez-en artelanak nahi duzun beste aldiz ikustea?... Artea ikusteko ondoko bi era hauek konparatu: zuzenekoa eta birtuala, horietako modu bakoitzean ikusten dituzun abantailak eta eragozpenak aipaturik.

Testua interpretatzea

5. Antonio Lopez-en erakusketan katalogo bat dago. Liburuak erakusketako artelan guztiak eta hauen azalpenak ditu. Artelanak hurbiltzeari dagokionez, zer alde ikusten duzu aplikazioak duen moduaren eta katalogoak duenaren artean? Zein ikusten duzu hobea eta zergatik? Eta zer abantailak ikusten dituzu horrelako aplikazio informatiko batean, katalogo batekin konparatzen baduzu?

Ikasgaia: Euskara eta literatura

Jardueraren testuingurua

“Hizkuntzak eta hiztunak” komunikazio-proiektuan kokatzen da irakurgai hau. ikasleek hizkuntzen inguruko testuak, askotariko erabilera-eremuak, irakurriko dituzte eta testuko informazioa erabiliko dute eskolako hizkuntzei buruzko gogoeta egin eta informazio hori baliatuta, gaiaren inguruko horma-irudia egiteko.

Testua

Euskararen egoera orokorra «osasungarria» dela esan du Unescok	
Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko egoera kritikatu ditu, 'Hizkuntzen Mundua' txostenaren euskarazko bertsioaren aurkezpenean	
Asier Iturriagaetxebarria – BILBO	
	<p>Munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzen bi herenak galduko dira XXI. mendean. Horixe da Unescok munduko hizkuntzei buruz egindako txostenaren ondorioetako bat. Horien artean ez da euskara izango, atzo Felix Martí Unescoren Hizkuntzen Mundua lanaren koordinatzaileak adierazi zuenez. «Euskararen egoera osasungarria da, nahiz eta beti ere erlaxatu gabe eta tentu handiarekin jokatu behar den».</p> <p>Baikor azaldu zen Martí euskararen egoeraren inguruan, baina gogoan izan zituen Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko egoerak. «Batean eta bestean euskarak duen egoerak biziki kezkatzen gaitu».</p> <p>Era berean, gogor kritikatu zuen Nafarroako Gobernuaren jarrera, «euskararen aldekoak ez diren neurriak hartzen dituelako». Dena den, euskararen egoera orokorra ona dela esan zuen. «Badago hizkuntza laguntzen duen gobernu bat eta gizartean bertan badago hizkuntzaren aldeko kontzientzia».</p>
Munduko hizkuntzen etorkizunaz baikor mintzatu zen Martí	
<p>Euskararekin egin bezala, munduko hizkuntzen etorkizunaz baikor mintzatu zen Martí. Aditu batzuek diote hurrengo hamarkadetan egun munduan hitz egiten diren hizkuntzen % 90 galduko direla. Martí ez zen bat etorri ideia horrekin, eta hizkuntza komunitate askotan norbere hizkuntza eta identitatea zaintzeko mugimenduak sumatzen dituela azpimarratu zuen.</p> <p>Ekainean argitaratu zuen Unescok Hizkuntzen Mundua lanaren ingelesezko bertsioa. Atzo, ordea, euskarazko bertsioa aurkeztu zuten, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) argitaratua. Martí kataluniarra lanaren koordinatzailea izan bada ere, proiektuaren sustatzaile nagusiak Euskal Herriko hizkuntzalariak izan dira, eta gehiengoa dira lanaren egileen artean.</p>	
http://paperekoa.berria.info/euskalherria/2006-02-10/018/008/lege_info.htm	

Galderak

Informazioa eskuratzea

1. XXI. mendean zenbat hizkuntza galduko dira?

- a. Lau mila gutxi gora behera.
- b. Bi mila inguru.
- c. Sei mila hizkuntza.
- d. Ez da hizkuntzarik galduko neurriak hartzen badira.

2. *Hizkuntzen Mundua...*

- a. Hizkuntzak zaintzeko eta ez desagertzeko aholkuak biltzen dituen liburua da.
- b. Munduan desagertuko diren hizkuntzen inguruko txostena da.
- c. Euskararen egoera aztertzen duen liburua da.
- d. Hizkuntzen egoerari buruzko txostena da.

Testua bere osotasunean ulertzea

3. Zein da testuaren ideia nagusia?

- a. Munduko hizkuntza asko galduko dira baina euskara ez.
- b. Euskararen egoera osasungarria da.
- c. Hizkuntzak galdu egiten dira eta ez dago erremediorik.
- d. Leku askotan hizkuntzak babesteko mugimenduak abiarazi dira.

4. Zer ideia azpimarratu zuen F. Martík?

- a. Euskararen egoera ez da ona, baina Nafarroan eta Iparraldean kezkatzekoa da.
- b. Hizkuntzak galdu egiten direla eta ez dagoela ezer egiterik.
- c. Oso inportantea da hizkuntzarentzat botere politikoa eta gizartearen laguntza.
- d. Hizkuntza ez da galduko komunitatean hizkuntza eta identitatea zaintzen badira.

Testua interpretazioa

5. Zergatik galduko dira hizkuntza horiek?

- a. Hizkuntzak jaio, bizi et hil egiten direlako.
- b. Hizkuntzak erabili egin behar direlako.
- c. Komunikatzeko balio ez dutelako.
- d. Gero eta hiztun gutxiago dutelako eta hizkuntza politika desegokia izan dutelako.

6. Zure ustez, zein da munduko hizkuntzen egoera aztertzeko arrazoia?
7. Zergatik hartzen du Unesco erakundeak hizkuntzen egoera aztertzeko ardura?
Zertarako....?

Testuaren formari buruzko gogoeta egitea

8. Testua irakurri eta aztertu zein edo testua antolatzeko zer nolako baliabideak erabili diren.
9. Zertarako erabiltzen dira kakotxak testu honetan?
 - a. Esaldi eta hitz batzuei indarra emateko.
 - b. Informazioari buruzko iritziak txertatzeko.
 - c. Norbaitek esan duena zehatz-mehatz jasotzeko.
 - d. Hainbeste testu jarraia egon ez dadin, testu segida mozteko.

Testuaren edukiari buruzko gogoeta egitea

10. Eskolako hizkuntzen inguruan egingo duzuen horma-irudian, testu honetako zein ideia edo esaldi hautatuko zenuke? Zergatik?

Materia: Lengua y Literatura Española

Contextualización de la actividad

Se propone la lectura de este texto a alumnado de 1º ESO. El texto se utiliza en el Proyecto Comunicativo “Los hablantes y las lenguas” cuya producción final en castellano es una exposición oral sobre alguna de las lenguas de la Península Ibérica. Para ello, deberán buscar información, comprenderla, seleccionar los datos que les interesan y utilizarlos en la elaboración de un esquema que será la base de su exposición oral

Texto

VARIEDADES DE LA LENGUA

Las lenguas no son uniformes, sino que, debido a diferentes causas, presentan en su uso gran diversidad. Esos modos diversos de utilizar la lengua reciben el nombre de variedades lingüísticas. Hay variedades históricas, geográficas, sociales y de registro.

- **Variedades históricas** son variaciones de la lengua a las que ha dado lugar el paso del **tiempo**.
- **Variedades geográficas**, originadas por la diferenciación de una lengua en las **distintas zonas del territorio** por el que se extiende. Las variedades geográficas se manifiestan en los dialectos. Los dialectos proceden de las diferencias que experimenta una lengua al extenderse por el espacio y el tiempo. Tienen condición de dialecto respecto al español el andaluz, el canario o el castellano de América.
- **Variedades sociales**, determinadas por factores característicos de los **distintos grupos sociales**. Las variedades sociales se originan por la pertenencia de los hablantes a distintos grupos. Las diferencias que existen entre las personas que forman esos grupos se reflejan en su manera de hablar. La manera de hablar es, por tanto, un medio de identificación social.
- **Variedades de registro**, debidas a las **distintas situaciones comunicativas** a las que un hablante ha de adaptar sus usos lingüísticos. El registro es la variedad de la lengua definida por el conjunto de las particularidades lingüísticas que el hablante elige para adaptarse a la situación comunicativa en que se encuentra.

Por tanto, las lenguas no se presentan de modo uniforme sino que en su utilización se constatan diferentes variedades.

Adaptado de: http://www.hiru.com/lengua_castellana/lengua_04500.html

Cuestiones

Comprensión global

1. ¿Por qué cambian las lenguas que se hablan y se escriben?

2. ¿A qué llamamos variedades lingüísticas?

Interpretación y valoración

3. ¿Qué variedad o variedades del español utilizas en tu entorno?
4. Piensa cuál puede ser la causa de las siguientes variedades del español:
 - a. Las expresiones que utilizáis entre vosotros.
 - b. Las expresiones propias de las personas que han venido de Ecuador, Bolivia, Argentina y otros países de América del Sur.
 - c. Las expresiones que aparecen en textos literarios antiguos, como en “El cantar del Mío Cid”.
 - d. Las expresiones que identifican a diferentes tribus urbanas.

Reflexión sobre la forma del texto

5. Releed el texto y seleccionad los elementos tipográficos que aparecen en él y os ayudan a organizar la información.